



M. A. BERMUDEZ ▶ SANFERMINEN ANTOLATZAILEA

«Katxutxo lehiaketak izaten zuen pisu gehien»

TOLOSA ▶ 80.
hamarkadan
antolatu zituen
Alde Zaharreko
San Fermin jaiak

HASIERA ▶ «50.
hamarkadan
hasi ziren; nik
oso gertutik bizi
izan ditut», dio ▶ 2



I. TERRADILLOS



ESTI EZEIZA

Alpeetara Dina Bilbao Bidai Bekarekin

GIZARTEA ▶ Ibarako eta Belauntzako zazpi gaztek irabazi dute aurtengo saria, 'Urtu baino lehen' izenburua duen lanarekin ▶ 3

MARIAN LAZKANO ▶
ZIZURKILGO ALKATEA

«Foroak
sortzea da
gure asmoa»

Arau berriztatzaileak
onartzea ikusten du
premiazkoena ▶ 7



Lazkano eta Arrastoa. I. GARCIA

MIKEL ARRASTOA ▶
ZIZURKILGO EAE-ANV

«Zinegotzi
bezala egon
behar dugu»

EAE baliogabetzeak
«demokraziarik eza»
erakusten duela dio ▶ 7



NEREX
1962-2007
Lentzeria
Gizonezko eta emakumezkoentzat

LIKIDAZIOA
(Jubilazioagatik)
prezio ezin hobekak!

Pijamak • Kamisoiak • Kamisetak
Batoiak • Pikardiak • Tangak • Bodiak

Errementari Kalea, z/g • TOLOSA • Tel.: 943 67 16 30

MIGUEL ANGEL BERMUDEZ ▶ ALDE ZAHARREKO SANFERMINETAKO 80. HAMARKADAKO ANTOLATZAILEA

«Katxutxo lehiaketa izaten zen sanferminetako ekitaldi nagusia»

50-60. hamarkadan hasi ziren sanferminak ospatzen Tolosako Alde Zaharrean; Miguel Angel Bermudez tolosarra 80. hamarkadan aritu zen antolatzen

IÑIGO TERRADILLOS

Gaur hasiko dira Alde Zaharreko Bizilagunek antolatuta San Fermin Txiki jaiak, 12:00etan botako duten suziriarekin. Hirugarren urtez jarraian antolatuko dituzte jai hauek, baina atzera eginez, konturatzen gara tradizio handiko festak direla, 50-60. hamarkadan hasi baitziren Alde Zaharrean sanferminak ospatzen. Miguel Angel Bermudez (Tolosa, 1949) 80. hamarkadan izan zen ekitaldi hauen antolatzaila. Festa hauen jatorriaz, garai haietan egiten zenaz eta egungoekin duten desberdintasunaz aritu gara solasean berarekin.

Nola sortu ziren sanferminak Tolosan?

50-60. hamarkadan hasi ziren ospatzen Errementari kaleko 38. zenbakian zegoen El Tuerto tabernan. Artaxonarria zen Jose Villanueva zen tabernako jabea. Taberna honetan sortu zuten Katxutxo peña 12 kide inguruk. Katxutxo tabernetan egiten zuten jolas bati deitzen zitzaion, eta egun ere leku batzuetan egite dute. Dadoa bota eta zenbaki txikiena ateratzen zuenak erronda ordaindu beharra izaten zuten. Hauek hasi ziren bada, festak antolatzen, nafarrak zirelako tabernaren jabeak.

Nolakoak izaten ziren jaiak?

Hilaren 6an eguerdian hasten ziren suziriarekin, eta 7an San



I. TERRADILLOS

Fermin eguna ospatzen zuten. Nafarroako jotak jartzen zituzten, haurrentzako jolasak, zinema, buruhandiak, lehiaketak, afariak, *Pobre de mi* abesten zen, Korazonistetan meza hildakoen alde, Katxutxo lehiaketa... Azken hau izaten zen jai-

tako ekitaldi nagusietakoa. Parte-hartzaile bakoitzak dado handia hiru aldiz bota behar zuten, eta azkenen puntuazio handiena zuenak irabazten zuten Esmeralda erloju dendak oparitutako eskuko erloju bat. Zinemari dagokionez, lehen te-

lebista ez zegoen, eta maindire bat jartzen zuten Errementari kalean, eta zinema mutua eskaintzen zuten. Jende ugari biltzen kalean euren etxeetatik aulkia hartuta, pelikula ikusteko helburuz. Giro ona izaten zen ospakizun hauetan.

Zu ere antolatzaila lanetan ibili zinen.

Ni antolatzailaen bizilaguna nintzen, horregatik hasieratik oso gertutik bizi izan ditut jai hauek. 50-60. hamarkadaren ostean, etenaldi bat izan zuten ospakizun hauek. Nik, 80. hamarkadan, El Tuerto tabernako jabearen semeari proposatu nion festak berriro antolatzen hasi behar genuela. Hamarkada batez antolatu nituen nik beste hainbat kidearekin, baina taberna itxi zutenean jaiekin bukatzeko unea zela pentsatu nuen, taberna hura baitzen jai haiek egotearen arrazoa.

Orain 3 urte berriro hasi dira antolatzen?

Alde Zaharreko Bizilagunak hasi dira San Fermin Txikiarekin. Oso ondo dago, eta horrela jarraipen moduko bat dute jai hauek gurean. Desberdinak dira, besteak beste, egungoetan gazteteoie zuzendurikoak direlako orohar.

Iruñeara joaten al zara San Fermin jaietan?

Ez. Nik Alde Zaharrean antolatzen genituen eta ditugun jaiak ezagutu nituen, eta bertan ospatu izan ditut.

KIROLAK ▶

Tolosaldea IKT «bikain» Espainiako Txapelketan

Hegats igerilariek orotara 5 domina lortu zituzten Valladoliden

ERREDAKZIOA

Iragan asteburuan Valladoliden Hegats igeriketako gazteteoen Espainiko Txapelketa jokatu dute, eta Tolosaldea IKT taldeko 8 igerilarik domina lortu dituzte.

Mara Varelak bi domina lortu zituen, urrezkoa 50 ur azpitik eta zilarrezkoa 100 eskafandrako probetan. Jokin Zubizarretak brontzezko domina lortu zuen 25 ur azpitik proban. Gainera, Nere Karrerak 4. postua lortu zuen 100 eskafandrako proban.

Erreleboetan Nere Karrera, Irati Aiestaran, Irati Larrañaga eta Mara Varelak zilarrezko domina lortu zuten 4X100 ur gaineko proban. Jokin Zubizarreta, Yon Molineiro, Iñigo Sanz eta Imanol Zubelzuc, berriz, 4X50 ur gaineko erreleboan brontzezko domina lortu zuten.

Gurutze Beldarrain eta Ana Artutxa entrenatzaileei eskerrak eman nahi dizkiete taldekideek. Helduek, bestalde, hilaren 14an eta 15ean izango dute txapelketa.

MUSIKA ▶

Gabriel Gulian eta Homo Demens Bide Biden

ERREDAKZIOA

Usabal kiroldegiko Bide Bide jateak hainbat kontzertu antolatu ditu uztaileko gaue-tarako. Hain zuzen ere, ostiral eta larunbat gaueetan izango da kontzertu hauetaz gozatzeko aukera.

Asteburu honi dagokionez, gaurkoan, jazz doinuak izango dira nagusi, 23:00etatik aurrera, Gabriel Gulianen eskutik. Biharkoan, berriz, eta ordu berean hasita, Homo Demens talde tolosarra izango da zuzeneko kontzertua eskainiko duena Bide Biden.

Iñaki Moyuak eginiko zezenak gaurko entzierroan

Ohiturari jarraituz, San Fermin jaietan zezenek ezin dute hutsik egin, eta aurtengoetan, gainera, gazteteoek zezenak berriak izango dituzte entzierro txikian. Izan ere, gaur, 17:30etik aurrera, Iñaki Moyuak egin berri dituen gurpildun zezenak izango dira gazteten atzetik ibiliko direnak. Entzierroaren ostean, lehiaketa moduko bat egingo dute zezen bakoitzak azkenen izena izan dezan.

4 zezen eta kabestru bat dira Moyuak egin berri dituenak. Horretarako, 2 hilabete inguru behar izan ditu. «Lanetik atera eta denbora librean egin ditut», dio. Berak azaldu bezala,

iaz Iruñeko lagun batzuk utzi zizkieten antzeko zezenak eta gazteteoie gustatu egin zitzaizkiela ikusita horrelakoak egin zitzaizkela pentsatu zuten. «Gainera, San Fermin Txikiko jaietako antolatzailaek ere pentsatua zuten horrelako zerbait egitea, beraz, aurrera egin genuen».

Erraldoi eta buruhandien konpartsaren egilea da besteak beste Iñaki Moyua. «Gaztetatik izan dut horrelakoak egiteko afizioa, betidanik gustatu izan zait», azaltzen du. Orain, bere azken lana amaituta, hau da, zezena, buruhandien kopurua handitzea ari dela pentsatzen dio. ◀



Iñaki Moyua berak eginiko zezenekin. NOTICIAS DE GIPIUZKOA

TOLOSA ▶

Egun hauetan Iruñera joateko tren zerbitzua

E. EZEIZA

Renfek, San Fermin jaiak dira eta Iruñeara joateko tren bereziak jarriko ditu gaur, etzi eta hilaren 13rako.

Renferen sei tren bereziek ondorengo geltokietan egingo dituzte geldialdiak: Irun, Lezo-Errenteria, Pasaia, Donostia, Hernani erdialdea, Andoain erdialdea, Tolosa erdialdea, Tolosa, Ordizia, Beasain, Zumarraga, Legazpi eta Altsasu.

Iruñeara joateko Ibilbide Ertaineko hiru tren berezi izango dira, gaur, bihar eta datorren ostiralean. Hauek, 18:45ean abiatuko dira Iruñetik eta Iruñera 21:00etan iritsiko da.

Gipuzkoara itzultzeko, hilaren 8, 9 eta 14an izango da zerbitzu berezia. Tren horiek 10:00etan irtingo dira Iruñetik.

TOLOSA ▶

Gaurtik irekita, Ereitekoen merkatu berezia

E. EZEIZA

Ereite elkarteak merkatu berezi bat antolatu du asteburu honetarako beraien proiektuak aurrera eramateko. Bat, bi, hiru... eurotan eskuratu ahal izango da arropa.

Merkatua San Esteban kaleko Ereiteko egoitzan bertan egongo da jarrita, hau gaur, bihar eta etzi egongo delarik zabalik, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

GIZARTEA ▶

«Urtu baino lehen»

Ibarra eta Belauntzako zazpi gaztek irabazi dute Dina Bilbao Bidai Beka; berotegi efektuak eta klima aldaketak Alpeetan izan duen eragina aztertuko dute

ESTI EZEIZA

Hamar egun, furgonetan bat, milaka kilometro eta 3.000 euro, hori da Ibarra eta Belauntzako zazpi gazteek dutena Alpeetara bidai egiteko. Seguruena gutxiegi dela irudituko zaie askori, baina beraiek oso gustura agertu dira aukera honekin.

Prensa bidez jakin zuten Dina Bilbao Bidai bekaren berri 17 eta 18 urteko gazte hauek. Honen ondoren, elkarrekin komentatu eta segituan lanean hasi ziren proiektu erakargarri eta interesgarri bat prestatzeko. Taldekide bat, Ibai Sarasola duela zazpi urte Suitzian izan zen herrialde honetaz «maitemindu» zen. Hala, egun pil-pilean dagoen berotegi efektuarekin eta klima aldaketarekin elkartu, eta Alpeetarako bidai antolatzea erabaki zuten aho batez.

Urtu baino lehen izenburupean bildutako egitasmoa sakan, txukun eta mimoz landu du koadrilla honek. Txikitatik ezagutzen dute elkar, eskolan elkarrekin ikasi dute, eta denak ere gazteak eta bidaiazaleak dira. Berotegi efektuak eta klima aldaketak azken hamarkadetan naturan, eta bereziki, Alpeetako glaziarretan eragin duen kaldea eta atzerakada aztertzea da euren helburua. Asmo horrekin, Alpeetako bertako aditu eta herritarrekin elkarrekin egongo dituzte, Alpeetako glaziar ingurune ederreneretako batzuk ezagutuko dituzte. Honekin batera, bekaren helburuetako bat egindako bidaiaren berri ingurukoei zabaltzea zen, horregatik arazoaz jendea kontzientziatzen saiatuko dira Tolosaldera itzultzean.

Besteak beste, glaziar hauek bisitatuko dituzte: Anniviers



Dina Bilbao Bidai Beka Ibarra eta Belauntzako gazteak irabazi dute, bi mutil, eta gainontzekoak neskak dira. E. EZEIZA

ibarreko Moiry glaziarra; Monte Rosa magaleko Gorner glaziarra; Eiger, Monch eta Junfratu magaleko Aletsch; eta Oberlandeko Trift glaziarra.

Oraindik erabat zehazteke badago ere irailaren 14tik 23ra bitartean egingo dute bidai. Josu Iztueta bidaiaria izango dute gidari, eta beraiekin batera glaziarretan aditua den geologo bat joango da. Uda hau bidai prestatzen igaro beharko dute orain, taldekideen esanetan, dagoeneko jarri dira harremanetan Alpeetako erakunde batzuekin, eta egitarau antzeko bat ere prestatu dute.

Proiektu originalak

Antolatzaileek «gustura nabarmendu» dute Dina BBren lehen deialdira aurkeztu diren hamar lanen maila. «originaltasuna, ezagutza eta guztiak islatzen duten ilusioa». Hizkuntza kezka nagusi hartuta, Europako lau errealtate linguistiko ezagutzeko asmoa duen proiektua; Pasaia batelariak eta Veneziako gondolariak elkarri lotuz bi herrietako itsas tradizioa eta bizimoldea aztertuko asmoa duena: arteari loturik, eta bide guztiak Erromara eramaten ote duten jakin nahirik, Donostiatik Italiako hiriburura joan nahi duten gazteen egitasmoa; Ötzi, duela 5.300 urte Dolomitetan bizi zen artzainaren urratsetan mendigune hark eskaintzen dituen kirol eta kultur aberastasunak gozatu nahi dituzten gazteen ekimena...

Antolatzaileen esanetan, «proiektu asko izan dira beka jasotzeko modukoak, gauzatzeko oso politak. Horregatik, nahiz eta beka batek jaso, asmoak aurrera eramatera animatu nahi ditugu parte hartu duten gazteak».

Dinaren izpiritua

Beste kultura, hizkuntza eta herrialdeekiko kezka eta jakinmina, naturarenganako maitasuna eta errespetua, bidaiatzeko grina, kirol zaletasuna, emakumeen berdintasunerako ahalegina, talde lanerako gogoia... Balio horiek guztiak islatu dituzte bekara aurkeztu diren proiektu guztiek.

Dina Bilbaok bere bizian landu eta zabalduko balioak. Gazteen artean ilusio hori ikusteak antolatzaileak asko poztu ditu. Hori dela eta, bekaren bitartez haren izpiritua bizirik jarraituko duela ziurtatzen dute ondarrutarraren lagunek, hurrengo deialdiatar begira ere.

Euskarazko klaseak ematen, eski monitorea eta piragua irakasle gisa ateratu zuten bizi-modua Dina Bilbaok, baina txikitari eta gaztetan hamaika lan eginak zituen antxoak gar-

bitzen, ogitartekoak prestatzen edo inkestak egiten. Bere kirol ibilbideagatik egin zen ezaguna, baina berandu ekin zien lehiaketek, hogei urteak pasata, 80ko hamarkadan gauzak bestelakoak zirelako: emakumeak ia ez zuten lekuri kirolean. Horregatik aitzindari izan zen Dina Bilbao, eta hainbat emakume kirolari gazterentzat erreferentzia. Hurbiletik ezagutzen zutenek diote, bizitza «kiroltasunez» hartzen zuela.

Iraupen eskian eta txirrindularitzan eman zituen lehenengo urteak, eta ondoren triatlotaian aritu zen buru-belarri. Ehun triatlota baino gehiago egin zituen, beste berrogei bat neguko triatlota eta hirurogei bat duatloi. Bestalde, kirola aitzakiazat hartuta munduko hainbat eskualde ezagutzeko aukera izan zuen: Laponia, Groenlandia... ◀

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Regina Otaola (PP) itzuli den egunean tentsioa kalean

Atzo «herria militarki okupatu» zutela esateaz gain, Ertzaintzaren «jokaera harroa» salatu dute herritarrek



Ertzainak eta bizkarzainak udaletxe kanpoan; barnean Regina Otaola eta Laura Garrido. A. IMAZ

ASIER IMAZ

Atzo goizean Regina Otaola (PP) Lizartzara itzuli zen, «Udal baten funtzionamenduan ohiko lanak egitera». Laura Garrido eta hirugarren PPren ordezkari bat ere, Otaolarekin batera gerturatu ziren udaletxera.

Astelehenean bezala, udaletxe inguruan ertzain eta bizkarzain ugari elkartu ziren. Baina horretaz gain, herritarrek jakinarazi dutenez, «Lizartzako puntu ezberdinetan zehar banatu dira ertzainak».

«Ertzaintzaren jokaera»

Herritarrek poliziaren «harrokeriz betetako jokaera» salatu zuten. «Goizeko 08:00etan iritsi dira Ertzaintzaren furgonetak. Herria berriz ere militarki okupatu digutelarik. Bi furgoneta herri amaierako aparkaleku pribatuan gelditu dira eta besteak udaletxe ingurura gertu-

ratu. Herri amaieran geratu diren ertzainek, langile batzuen ibilgailua geratu dute, aparkalekura azkarregi sartu direla esanaz. Guztira hiru multa zentzugabe jarri dizkie, edozer gauza aitzakiatzat hartuta. Multa bat gaizki aparkatzeagatik jarri die, beraiek ibilgailua non utzi behar duten esan ondoren. Isuna jartzeko paperik ere ez zuten».

Aparkaleku pribatuko jabea 59 urteko emakume lizartzarra da. Lekukoan esanetan «bultzada bat jasateaz gain, ertzain batek sorbaldez kolpe bat eman zion. Aparkalekuko jabeak bertatik joateko eskatu die ertzainei, bezeroak uxatzen zizutzelako. Hauek, Ertzaintzaren logoarekin edozein lekura sar daitezkeela erantzun die. Honetaz gain, karneta eta eskriturak ere eskatu dizkie jabeari. Paperak eman ondoren, bi furgoneten artetik pasatzera ziozela, ertzain batek sorbaldez kol-

pe bat eman dio. Gero bultzadakada eta guzti izan dira. Emakumeak besoa gorritua dauka, urradura markekin». Lekukoan esanetan, 11:00ak inguruan joan ziren bi furgoneta; «bozina joaz joan dira».

Otaolarengana kexuka

Zazpi herritar Regina Otaolarengana gerturatu ziren «herria militarizatzen» ari direla esatera. Otaolak «segurtasunagatik» daudela erantzun zuen. Haien erantzuna «herri honetan gerra piztu nahi» dutela izan zen, «herri guztia armez hartua dutela esanaz». Herritarren esanetan, «haurrak ere, ludotekara joateko beldurrez ibili dira, etxetik gurasoekin atera behar izan du zenbaitetik». Otaolarengana gurasoren bat ere joan zen «baina ez dio jaramonik egin».

Bestalde, ezker abertzaleak atzo gauean batzarra burutu zuen, «okupazio militar honi erantzuna emateko zer egin erabakitzeko».

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzailea. Emakume euskalduna behar da umea eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak: 629 54 02 11.

Sukaldaria. Iturri-goxo jatebean sukaldari laguntzailea behar du. Deitu: 943 69 12 10.

IBARRA ▶

Kirol elkartearen urteko festa asteburuan

Ibarrako kirol elkarteak bere urteko festa ospatuko du asteburu honetan. Bihar goizeko 09:00etan diana antolatu dute herrian zehar. Honen jarraian, 11:00etan bazkideei hamaiketako eskainiko diete. Ondoren kalejira egingo dute herritik barrena. 16:00etan bazkaria aurreikusia dago, behin bazkaldu ostean, kalejirarekin jarraituko dutelarik. Etzi, berriz, 11:00etan meza nagusia izando da hildako bazkide guztien omenez.

IRURA ▶

Sanferminetako txupinazoa botako dute

Iruran Goiza Pasa udaleku irekia martxan dago dagoeneko. Eta urtero legez, gaur Iruñean ospatzen hasiko diren San Fermin jaiak gogoan, Iruran ere 12:00etan txupinazoa botako dute. Horrez gain, herriko txikienek zezenen aurretik korrika egiteko aukera izango dute. Buruhandiak ere izango dira eta beraz korrika gehiago egiteko aukera ere. Seguru plaza kolore gorritz beteko dela haurrek lepoan eramandako zapiek.

BELAUNTZA ▶

Jatetxearen inaugurazioa, etzi

Hiru urteren ondoren, Belauntzako jatetxea iragan larunbatean zabaldu zuten. Hala eta guztiz ere, etzi, igandea, hamaiketako berezi bat prestatzea otu zaie, denboraldi berriaren inaugurazio modura. «Sukaldariak urte luzeetako esperientzia du eta honi esker eguneko menua zein jaki berezietan bere jakitura aportatzeko aukera du». Urteko egun guztietan zabalik egongo dela jakinarazi dute, goizeko 09:00etatik gaueko 22:30ak bitarte.



Belauntzako jatetxea. HITZA

AIZKORA ▶

Jesus Mari Mujika 2. mailako txapelketan

Gipuzkoako Bigarren Mailako Aizkora Txapelketa bihar 19:30ean jokatu da Usturribilen. Txapelaren lehian, sei aizkolarari ariko dira eta egin beharreko lana honako hau izango da: 54 ontzako lau enbor eta 60 ontzako bi moztu beharko dituzte. Partaideak, Iñaki Aierbe, Jesus Mari Lasa, Ugaitz Mugerza, Jose Ugarteberu, Jose Felix Zubizarreta eta Jesus Mari Mujika ibartarra izango dira. Ibartarrak Urrezko Aizkoran maila ona erakutsi zuten.

SEGA ▶

Euskadiko finalerdiak etzi, Oiartzunen

Euskadiko Segatxapelketaren finalerdiak etzi, igandea, Oartzungo Pikoketako belardietan ospatu dira. Segalariak bi talde eta bi saiotan ariko dira. Lehen saioa 11:00etan jarriko da martxan eta bertan, Arkaitz Arteaga baliarraindarrak, Joxe Gabirondo Gipuzkoako txapelkun gazteluarra eta Jesus Mari Ormaetxea Urki orendaindarrak ariko dira. Bigarren finalerdian berriz, Lapazaran, Alkorta eta Goikoetxea gazteluarra arituko dira lehian.

BERASTEGI ▶

Egun pasa Gaztainondo elkartearekin

Gaztainondo jubilatuko elkarteak hilaren 19rako egun pasa antolatu du. Goizean 09:00etan herriko enparantzan autobusa hartuko dute. 10:00etan Zarautzera iritsiko dira, hemendik Debara joateko. Bazkaldu berriz, Itziarren egingo dute egun pasara joaten direnek. Arratsaldean berriz, Mutrikura joango dira, 20:00ak inguruan Berastegira itzultzeko asmoz. Izena eman nahi duenak hilaren 15 baino lehen egin beharko du elkartearen.

hitza

Praktikak HITZAn irailetik aurrera

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioa lizentziaturretako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:
 Araba etorbidea, 5 behe- atzea • 20400 TOLOSA
 tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
(uztailearen 15a baino lehen)

ZIZURKIL ▶ POLITIKA

Ezker abertzaleak ezin izan zuen aurkeztu udal hauteskundeetan, baina beraien datuen arabera EAE-ANV izan da alderdirik bozkatuena; Marian Lazkano (EAJ) alkateak eta Mikel Arrastoak (EAE-ANV) beraien iritzia eman dute udal politikari buruz IMANOL GARCIA

MARIAN LAZKANO ▶ ZIZURKILGO ALKATEA

«Gure asmoa foroak sortzea da herritarrek parte hartu ahal izateko»

Marian Lazkanok (EAJ) bigarren legealdia hasi du alkate bezala

Bigarren legealdia jarraian hasi du EAJko Marian Lazkanok (Aia, 1957) alkate bezala. Udaletxean 1991tik dago, horietatik sei urtetan alkate izan da eta besteetan zinegotzi moduan aritu da.

Zer analisi egiten duzu hauteskundeen emaitzei buruz? Hauteskundeen emaitzek, EAE-ANV kontuan izanda, ez naute gehiegi harritu. Atzera begiraturaz gero, alkateak txandatu joan gara. Nik uste nuen legealdi honetan ezker abertzalea Udalean izango genuela. Ustekabe negatiboa izan zen hori. Horrek giroa pixka bat nahasten du, baina ea egoera hori bideratzeko gai garen.

Ezker abertzalearekin elkartu zarete, Udalean bere parte hartzeari buruz hitz egiteko. Oso bide onetik doaz gure har-

tuemanak. Aztertzen ari gara beraiek egindako proposamenak eta berriro elkartu behar dugu. Bilatuko dugu modua egoera konpontzeko.

Aurreko legealdiaren zer balantze egiten duzu? Zizurkilgoen gauza asko daude egiteko. Arau berriztatzaileen berrikuspena bukatzeko daukagu, baina dagoeneko lan handi bat egin dugu, eta horrek emango du aukera hainbat gauza egiteko. Etxeko lanak egitea tokatu zaigu azken lau urte hauetan. Bestalde, hainbat gauza ere egin ditugu: haurtzaindegia, Ugareko obrak hasi dira, Pagamuñoko obrak hasi dira... Baina orokorrean esango nuke egin dela lana hurrengo urteetan posible izango diren proiektuak gauzatzeko.

Eta legealdi honetarako zer aurrekustuen duzue? Premiazkoena arau berriztatzaileak onartzea da, hori baita atea beste hainbat gauza egiteko: Zizurkil Goian auzo berri bat egiteko edo Iarza auzoa berritzeko, esaterako. Bestalde, Kultur Etxea goitik behera berritu behar da. Eskola txikia gelditu da eta handitu egin behar da. Zizurkil Goiari ere errepasso bat eman behar dio. Kultura eta kirolaren inguruko hainbat gauza egin behar ditugu ere, eskaerak horiek direlako.

Nola ikusten duzue herritarren parte-hartzea? Gure asmoa da foroak sortzea, adibidez Kultur Etxea bezalako gaien inguruan eta beste hainbatetan, jendeak parte hartzeko. Agenda 21eko ere

izan daiteke bide bat, baina horretatik aparte garrantzia duen edozein gairen inguruan irekiko dugu bidea jendeak bere iritzia emateko.

Nola doa Agenda 21a? Aurreko legealdian diagnostikoa egin zen. Orain dokumentu bat dugu Zizurkilgoen aurrera begira, eta ikuspuntu hori jarri beharke diogu edozer gauza egiten dela ere. Agenda 21 aplikatzeak ez du esan nahi ezin dela ezer ikutu, baizik ikurterakoan ikuspuntu horretatik egin behar dela. Eta egunero gauza txikietatik hasi eta herrian egingo diren gauza handietaraino aplikatu daiteke. Eskolako Agenda 21ari garrantzia ematen diogu, gazte-koak eta haurrak ikuspegi horrekin bideratzen baditugu, bide luzeagoa duelako.



I. GARCIA

Eta etxebizitzaren egoerari buruz zer diozu? Aurten hasiko dira Joxe Arregin eta Area 33an etxebizitzak egiten. Joxe Arregin 40 etxebizitza egingo dira, horietatik 30 tasatuak eta horietatik erdiak zizurkildarrentzat. Area 33an 115 etxebizitza joango dira, horietatik 33 babes ofizialekoak. 200 lagunetik gora eman dute izena etxebizitza babestu horietarako, beraz ikusten da beharra dagoela etxebizitzak egiteko. ◀

MIKEL ARRASTOA ▶ ZIZURKILGO EAE-ANV-REN ZERRENDABURUA

«Zinegotzi bezala egon behar dugula lanean proposatzen dugu guk»

EAE baliogabetzeak «demokraziarik ez dagoela» erakusten duela dio Mikel Arrastoak

Mikel Arrastoak (Zizurkil, 1954) urte asko daramatza udal politikan. Lehenengo legegalditik hasita, 10 urtez izan da alkate eta beste bi urtez zinegotzi.

Zer suposatzen du zerrenda baliogabetuta izateak? Demokraziarik ez dagoela suposatzen du. Gehien bozkaturia izan den zerrendak ez du aukerarik izan aurkezteko eta jende askok ez du ofizialki ordezkariarik. Guk ahalegina egingo dugu gure lanaren bitartez adierazteko hor gaudela presente. Salatu behar den egoera bat da. Kontraesanak ere hor daude. Aurretik egon gara eta egin dugu lana. Lehen legala zen eta orain ez?

Emaitzei dagokionez zer analasi egiten duzu?

Lehenik autokritika bat egin dezakegula uste dut. Apartheid egoeran egonik, ez dugu jakin maila batean egon eta hori transmititzen. Nahiz eta lanean egon eta jarraipena egin, nik uste dut udaletxean oso lasai egon direla. Bestalde, lau urte pasa ondoren emaitzak hor daude. Guk lortu dugu lehen zerrenda izatea. EAJk eta EAK zigor bat izan dute herri mailan eta beraiek sentsazio hori badute. Lau urte egon dira eta ez dute esperotako emaitza izan. Bestalde, guk emaitza horiek lortzea legez kanpo egonik eta jakinda ez genuela aukerarik izango aurkezteko, beste indar bat dauka. Agenda 21ekin eta arau berriztatzaileekin ematen du zerbaitegin dutela he-

rriarri begira, baina ez dute lortu konexio hori herriarekin.

Bilerak egin dituzue ezker abertzaleak Udalean parte hartzeko. Nola ikusten duzue egoera? Aurrera egin behar zutena zen ez hartzea eserlekuak eta guri uztea. Postura askoz irekiagoa izango zen tentsioa baztertzeko. Guk kritikatu eta salatu egin dugu, eta egingo dugu, baina horretan bakarrik gelditu beharrean, prest gaude lanerako. Bileretan guk planteatzen dugu zinegotzi bezala lanean egon behar dugula. Bai osoko bilkuretan, bai batzordeetan, teknikoekin harremanetan eta Udalak egiten dituen gestioetan egoteko aukera izan behar dugu, informazioa eta informe teknikoak ere jaso

behar ditugu. Beraiek aukera ikusten dutela diote. Orain pausoak eman behar dira.

Nola ikusten duzue aurreko legealdia? Ez da gauza handirik egin. Hor daude egin gabe oraindik Asteasuko bariantea edo arau berriztatzaileak. Agenda 21ari ere heldu behar zaio eta joan irtenbideak eta planteamenak ateratzen... Gero gestio batzuk eman direnak ez ditugu oso garbi, Leizarango poligonari edo area 15ari dagokionez. Kulturen, hezkuntzan, hirigintzan, kirolan, baserri munduan gauza asko daude egiteko.

Zeri heldu behar zaio legealdi honetan? Herria nola ezastrukturatuko den dago jokoan. Oso garran-



I. GARCIA

tzitsua izango da, egingo direnak urte askorako izango direlako. Asteasuko barianteari ekin behar zaio. Bestalde, AHTari buruz informazioa zabaldu eta eztabaida sustatu behar da herriak erabakitzeko aukera izan dezan. Etxebizitzaren gaia ez da gauzatu eta gazteek eskaera egiten dute. Zizurkil Goiko urbanizazioa ere hor dago. Bestalde, zerbitzu gehiago izateko ere kudeaketak egin behar dira. ◀


ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko uztailaren 6a, ostirala ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez  arratsaldez  beroena **24** hotzena **16**

BIHARKO EGURALDIA goizez  arratsaldez 

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alikiza, Alzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Leiza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zuzurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia 

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA **902 82 02 01**
 (balantza argitzeko, harpidetuen egiteko...)

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Alurr Dantza Taldeak jaietan, abuztuak 23, soka dantza egiteko entseguak antolatu ditu hilaren 10ean, 20:30ean egoitza zaharrean. Herritar eta gazte guzterie gonbidatzen zaie, aurten Bizi Nahi jubilatutako elkartearen aurrean dantzatzeko dutelako.

Leitza. Arkupeak jubilatutako elkarrekin hainbat irteera antolatu ditu uztailaren 23an eta 24an Lourdesera, 26an Aralarreara Aiton-amonen Egutera (barkaria eta dantzaldia) eta 28tik abuztuaren 1era Pirinioetara. Izen-ematea, elkarrekin.

Tolosa. Henna tailerra antolatu du Gazte Topaguneak doan 17:00etatik aurrera. Saharako neska batek erakutsiko die gazteei ohitura hau.

Tolosa. San Fermin Txiki jaia; egitaraua: 12:00etan, txupinazoa. Ondoren, gozokiak eta puzgarriak banatuko dituzte, eta buruhandiak izango dira. 17:30ean, entzierro txikia, Iñaki Moyuak egindako zezenekin: Plaza Berria, Errementari kalea, Korreo kalea, Plaza Berria. Ondoren, txokolata denontzat.

Tolosa. Uztailko asteazken eta ostegunetan buzeatzen doan erakutsiko die Usabal kiroldegian 11 urtetik gorako gazteei 18:30etik aurrera. UDA kanpainaren barruan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Goizueta. Apeztebea, L.M. Kale Nagusia, 64. 112.
Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
Tolosa. Morant, R. Zabalaretta, 1. 943 673649.

IRRATIA

Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotza magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoak, elkarrizketak, agenda, lehiaketa...
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotza (errepikapena).
 20:00-21:00. Asteko onena.
 21:00-22:00. Igo bolumena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.



Eguraldi onarekin batera, pagotsaren bila

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Eguraldiak ez du lagundu udaberri-udako denboraldiko lehen hilabeteetan eta, ondorioz, dende oraindik beteta dituzte euren apalak arropa, bitxi eta bestelako osagaiekin. Astelehena geroztik, gainera, produktu hauek merkeago topa ditzakegu, merkealdia garaia heldu baita. Ia-ia bi hilabete iraungo du merkealdia, irailera arte, hain zuzen ere. Oso tentaga-

ria suertatzen da ohi baino merkeago erostea, baina kontsumitzaileen elkartetik erosleei etengabe gogoarazten die soilik beharrezkoa eros dezatela, eta dende arreta berbera eskaini behar dutela garai honetan. Erosleek batez beste 120 euroko gastua egingo dutela aurreikusten dute, askotan beharrezkoak ez dituzten arren. I. TERRADILLOS

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udalebeko bulegoa

▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea

hitza agurren tarta

LEABURUKO OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea izan ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
 Tel.: 943 67 15 48

merkealdia

Zute heurtita!

ZATOK GURE DESKONTUAK IKUSTERA

TOLOSA
 Lizardi plaza, 2
 ELOLA ALTZARIAK
 Tel.: 943 65 29 01

DONOSTIA
 Peña y Goñi, 16
 Tel.: 943 32 03 58

Tolosa etorbidea, 19
 Tel.: 943 31 27 84

Interesik gabeko finantziarioa 12 hilabetetarako

